

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Lanbide Heziketako hamaika ikasle nafar ari dira Skills txapelketan lehiatzen Madrilen

Europako eta Mundu mailako skills txapelketen aurrekaria da Nafarroako sei ikastetxeetako ikasleak jokatzeko ari direna

Asteazkena, 2019.eko martxoak 27

Gaurtik eta ostiralera bitartean lanbide heziketako hamaika ikasle ari dira #SpainSkills txapelketan lehiatzen, Madrilgo IFEMA azoka-gunean. Euren tutoreekin eta Hezkuntza departamentuko ordezkariekin batera joan dira bertara. Fresaketa, elektronika, instalazio elektrikoak, industria kontrola, ebanisteria, aroztegia, lorezaintza, ibilgailuen margotzea, paisaia loregintza eta artatze sozio-sanitarioa modalitateetan ari dira lehiatzen.



Lehiakide nafarrak, irakasle eta Hezkuntza Departamentuko ordezkariekin.

2019 lanbide heziketako olinpiadetan [Nafarroako 11 lehiakideak](#) 10 modalitateetan lehiatzen ari dira. Hala, orain arteko parte hartzerik handiena da aurtengoa eta 10 tutoreen laguntza izan dute prestaketa lanetan. Foru Erkidegoko sei ikastetxeetako ikasleak Europa eta Mundu mailako txapelketetan parte hartzeko aukera izango dute, Madrilen lortzen duten emaitzen arabera. Virgen del Camino, Donapea, ETI, Donibane, Nekazaritza-Basogintza ZI eta Lizarrako Politeknikoko ikasleak dira 11 lehiakideak eta guztiek daramate 2017tik lehiaketa prestatzen. Izan ere, txapelketa bi urterik behin jokatzeko da eta orduan jaso zuten ikastetxeek parte hartzeko aukeraren berri. Harrezkero, tutoreen laguntzaz aritu dira prestatzen gaur lehiaketari ekin dioten arte.

Gaurtik hasita eta ostiralera bitartean, beraz, parte-hartzaileetako bakoitza ebaluatuko dute epai-mahaikideek egiteko agindutako ariketarako bakoitzean. Egunero, gehienez 8 orduko lanaldia izango dute egin beharrekoa gauzatzeko eta agindutakoa amaitzeko.

Enpresa eta hezkuntza

Spainskills txapelketak lanbide heziketaren bikaintasuna erakusteko aukera ematen du kultura, ekonomia, teknologia eta zientzia arloetan. Plataformak erakusleho gisa funtzionatzen du eta lanbide heziketaren etengabeko sustatzea lantzen du, aldi berean gara daitezkeen hezkuntza eta enpresa ehuna. Gobernu erakundeek, enpresa-babesleek eta hezkuntza erakundeek bat egiteko aukera dute ekimenari esker.

Hala, txapelketak aukera ematen du enpresaren eta hezkuntzaren

bateratzea gauzatzeko eta enpresek behar dituzten profesionalen formazioa ahalbidetzen du, biek ala biek onurak izan ditzaten, baita sozialki ere. Gaitasunak sustatzeko lehiaketak dira eta lanbide heziketaren beraren zabalkundea egiteko tresna egokia. Horregatik ere, skills txapelketa-antolatzaileak irabazi asmorik gabeko gobernuz kanpoko erakundeak dira, helburu bakarrarekin: informazioa hedatzea eta ezagutza partekatzea profesionalen gaitasunen garapenaren inguruan, kalitatea eta berrikuntza sustatuz eta lehiakideen artean eta munduko adituen artean kultura partekatzea ahalbidetuz.

Nafarroako 11 lehiakideek aukera izango dute Europako (EuroSkills) eta Mundu mailako (WorldSkills) txapelketetan lehiatzeko, urte bikoitia eta bakoitietan, hurrenez hurren.

2007tik lehiatzen

Nafarroako parte-hartzaileak 2007an izan ziren lehenengo skills txapelketan. Orduan 3 modalitatetan lehiatu ziren eta harrezkero gehitzen joan dira, gaur egun 10 izan arte. Dominei dagokienez, hainbat aldiz lortu dituzte urrezko dominak: 2011, 2013 eta 2017 urteetan. Azkenekoan, esaterako, lorezaintzan irabazi zuen ordezkari nafarrak eta Abu Dabhin jokatu zen mundu mailako lehiaketarako txartela eskuratu zuen, Marta Busto Montalvok, Nekazaritza-Basogintza eskolako ikasleak.